# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**1122**

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 26koa, Langileria Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuan jardungo duten epaimahaikideak izendatzeko zozketa iragartzen da (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez egin zen prozesu horretarako deia).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan sartzeko hautaketa-prozedurarako deia egin zen.

Agindu horren 5.2.2 atalak aurreikusten duenez, epaimahaikideak zozketaz izendatuko dira atal horretan adierazten diren funtzionarioen artean.

Horregatik guztiarengatik, hau

EBATZI DUT:

***Artikulu bakarra.***– Argitara ematea 2009ko martxoaren 5eko 10:00etan izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuan jardungo duten epaimahaikideak izendatzeko zozketa. Zozketa Gasteizen egingo da, Lakua 2 eraikineko 3. aretoan (Donostia kalea 1).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 26a.

Langileria Kudeatzeko zuzendaria,
ITZIAR GARAIZAR AGUIRRE.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**1122**

RESOLUCIÓN de 26 de febrero de 2009, de la Directora de Gestión de Personal, por la que se anuncia la celebración del sorteo para designación de vocales del Tribunal que ha de actuar en el proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Inspectores e Inspectoras de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco, convocadas por Orden de 20 de enero de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

Por Orden de 20 de enero de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, han sido convocadas pruebas selectivas para el ingreso en el Cuerpo de Inspectores e Inspectoras de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El apartado 5.2.2 de la citada Orden prevé la designación por sorteo de los/as vocales de los Tribunales entre los/as funcionarios/as a que se refiere el citado apartado.

Por todo ello,

RESUELVO:

***Artículo único.***– Hacer público que el sorteo para la designación de vocales del Tribunal que ha de actuar en las pruebas selectivas para el ingreso en el Cuerpo Inspectores e Inspectoras de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco se celebrará el próximo día 5 de marzo de 2009, a las 10:00 horas, en la sala n.º 3 del Edificio Lakua 2, sito en c/ Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 2009.

La Directora de Gestión de Personal,
ITZIAR GARAIZAR AGUIRRE.